



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA. HORREN BIDEZ EBATZI DA ■■■ JAUNAK, ■■■ JAUNAK, GLAUKOS SUB KLUBAK ETA ARMINTZA SUB URPEKO TALDEAK ■■■ RI ETA A D. ■■■ RI JARRITAKO DESKALIFIKAZIOENGATIKO DIZIPLINA ZIGORREN PROZEDURAK AMAITUTZAT EMATEA ETA HORIEI DAGOZKIEN ESPEDIENTEAK ARTXIBATZEA. ZIGOR HORIEK, ZEHAZKI, 2015EKO MAIATZAREN 10EAN EGINIKO "2015EKO BIZKAIKO TXAPELKETAREN SAILKAPENERAKO II. PROBA" URPEKO ARRANTZAREN LEHIAKETAN JARRI ZIREN.

---

Espedienteak: 19/2015 eta 20/2015

### AURREKARIAK

**Lehenengoa**.- Goiburuan adierazitako pertsona fisikoek eta kirol klubek errekurtsioak jarri dizkiete ■■■ jaunari eta ■■■ jaunari "Bizkaiko 2015eko Lehiaketaren II. Sailkapena" probaren urazpiko arrantza lehiaketan jarritako deskalifikazio-zigorren aurka. Proba 2015eko maiatzaren 10ean izan zen, Punta Galea-Arminztan, eta Bizkaiko Urpeko Jardueren Federazioak (aurrerantzean, BUJF) antolatu zuen.

**Bigarrena**.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsio horiek izapidetzeko onartzea erabaki zuen, baita BUJFi espedientea eskatzea eta izapidea ematea ere, alegazioak aurkezteko eta, hala nahi izanez gero, egokitzen jotako froga-eginbideak proposatzeko.

Horretarako emandako epean, BUJFek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari jakinarazi dio ezarritako diziplina-zigorrek baliogabetu direla; izan ere, ezin dira diziplinaz zigortu lurraldeko federazio horretako kideak, Batzar Orokorra ez baitu onartu Kirol Diziplinaren Arautegia.



**Hirugarrena.**- Jakinarazpen hori jaso baino lehen, 2015eko maiatzaren 25ean Kirol Justiziako Euskal Batzordeak hartutako erabakiaren bidez erabaki zen [REDACTED] jaunari eta [REDACTED] jaunari ezarritako zigorrak bertan behera uzteko kautelazko neurriak onartzea, pertsona fisikoek eta erakunde errekurtsio-egileek eskatutakoari jarraikiz. Hala, izapide horren baitan erabaki zen metatutako kautelazko eskaerak ebaztea.

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ustez, bere garaian adierazitako arrazoi berberak oinarri hartuta, egokia da modu berean metatutako errekurtsio horiek ebaztea.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hauek aztertzeko eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 106.2.c) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan; azken horren arabera, organo horri dagokio *“kirol-diziplinako ahalmena duten kirol organo titularren erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzea eta ebaztea”*.

**Bigarrena.**- Bigarren aurrekarian adierazi den bezala, BUJFek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari jakinarazi dio [REDACTED] jaunari eta [REDACTED] jaunari jarritako diziplina-zigorrak baliogabetu egin direla, jakinarazpen horretan azaldutako arrazoiengatik.

Adierazitako kirolariei ezarritako deskalifikatzeko diziplina-zigorrak federazio-bidean baliogabetzeak berekin dakar jarritako errekurtsioek xedea galtzea. Horrenbestez, arrazoi horregatik, bidezkoa da, Kirol Justiziako Euskal Batzordean abiarazitako prozedurak amaitutzat ematea, espedienteak artxibatzea, eta adierazpen horri dagozkion ondorioak izatea.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

**ERABAKI DU:**



Prozedurak amaitutzat ematea eta [REDACTED] jaunak, [REDACTED] jaunak, Glaukos Sub klubak eta Armintza Sub Urpeko Taldea klubak jarritako errekurtsoei dagozkien espedienteak artxibatzea. Errekurtsok [REDACTED] jaunari eta [REDACTED] jaunari "Bizkaiko 2015eko Txapelketaren II. Sailkapena" probaren urpeko arrantzaren lehiaketan (2015eko maiatzaren 10ean egin zen) ezarritako deskalifikatzeko diziiplina-zigorren aurka jarri zituzten.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 10a

José Ramón Mejías Vicandi

KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA